Bart irakurtzeko gaur izkiriatua

Xabier Izaga

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1998 Xabier Izaga
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1998ko azaroa
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

«Nolatan
—galdetu zidan epaileak—
zergatik
egin dituzu
gizatxarkeriok?,
zu lako gazte bat...».
Eta epai gisa espero nuen
«Ez ezazula berriro holakorik egin»
haren ordez
hogeita hamar urtez giltzapean bizitzera
kondenatu ninduen
elastikoz aldatzen ari denaren
erantzukizun berberarekin.

«Nolatan
—galdetu zidan epaileak—
zergatik
egin dituzu
gizatxarkeriok?,
zu lako gazte bat...».
Eta epai gisa espero nuen
«Ez ezazula berriro holakorik egin»
haren ordez
hogeita hamar urtez giltzapean bizitzera
kondenatu ninduen
elastikoz aldatzen ari denaren
erantzukizun berberarekin.

Irratia itzali
egiten dut
aldameneko zeldan den lagunari
atzazalak ebakitzen
entzuten diodanean,
zeren ez baita sekula jartzen
entzuten dudan musikaren
erritmoarekin ados.

EL PUERTO DE SANTA MARIA

Egunen batean marinelak
beren ekipaje urria bildu eta
partituko dira
portura ez itzultzeko
esperantzarekin.

Gure gutunak,
hegabera horiek,
beren helmuga epelera iritsiko direnentz
jakin barik abiatzen dira
hilbeltz eternal honetan,
beti ere zelatan dituztela
iraultza plan sekretuen ehiztariak.

Astelehenero bezala
astelehena da.
Jode!, ze bero egiten duen...
Zure argazkia ikusten dudanean
ez dut sentitzen berorik
ez eta ere hotzik,
zu bakarrik.

Egunero bezala
zure argazkira begira nago,
eta Bach-en musikak
argazkitik irtenarazten zaitu
eta nire barnera sartzen zara
bertan daukadan itsasoari
eragiten diozularik,
eta irato egiten nau
neurrigabeko itsaso honek,
askatu ahal izanen balitz
ia masailak bustiko ez lizkidakeen
itsasoa.
Astelehenero bezala

astelehena da,
baina jadanik
ez du bero egiten.
Hala ere
izerdiak estalirik
gordetzen dut zure argazkia.

Nor heldu zaik bihar?,
galdetu ohi diogu elkarri
bisita bezperan, eta gero zeldan
bizarra egiten dugu,
ama-edo heldu delarik
bizar aitzurra bi aldiz pasaz,
igandeetako arropak prestatu eta
distira ematen diogu
irribarre behartuari.

Batzuetan bisitatik itzulitakoan,
bertan hitz egindakoa baino areago
ahantzi edota isildu duguna gogoan,
elkarri galdetzen diogu:
nor etorri zaik?

Irribarrea galduz doa
astiro, horizontean
baforeak lez.
Badoa eta ez dakigu
inoiz itzuliko den
gure ezpainetako lehorrera.

LEHENENGO SAIOA

Neure ahotsa
hormetan errebotatzen
entzuteak izorratzen nau,

egunero hitz berberez
madarikatzeak nardatzen nau,

nire sudurraren proiekzioak
ezkerreko orkatilaren kontra
topo egiteak aspertzen nau.

Eta paseatu egiten naiz
itxuraz
indiferente,
zelda honetan bizi den armiarma bezala
(batzuetan barre egiten die nire belarriei
atzazalak margotzen dituen bitartean),
deusezezko txori bat bezala
Ederra litzateke
hamalau litro
        aire

edatea,
patrikak
hodeiz
betetzea,
neure burua
mendiz
estaltzea,
ur-jauzi batean barrena
korritzea
bisera horidun
zaldi baten antzera.

Tira...
ez naiz bederen
begirada ilunak bizikai dituzten
harresi-ereileen bazka izanen,

ez ditut bederen
bekainak salduko
sekula euri usainik ez dagoeneko
despatxoetako legeei
hautsa kentzeko.

GURE BIZILAGUNAK

Manuel Perez Pezuñak
ez zuen orbain bat bera ere falta
iragan astean iritsi zenean.
Espetxe ospitale psikiatrikoan ikasia du
psikopata ona izatez gerotan egunero
hogeita bi pilula irentsi behar dituela.
Begikoa da oso eta pozik egoten da,
areago kontuak egindakoan
hamazazpi egun barru kalean dela deduzitu
duenetik.
Gaur, aldiz, artega dabil
atzean laga dituen urratsak ostu dizkiotelako.
Guganaino hurbildu delarik
tabakoa erosteko diru apur bat eskatu digu,
“una librina” bere ahots kraskatuan,
eta psikopata dela dio behin eta berriz,
harro, eta kalera behar duela hiru hilabete barru,
eta haren lepoko zain gero eta hantuagoek
lehertu behar duten momentu berean
alde egin digu patioan barrena,
harro, bere psikopatia paseatzen.

Extremadurako emakume txikiak
beltzez jantzirik
beren gona estuekin eta galtzerdi grisekin
eta belaun zuriak agerian
kartzelara joaten dira
semea ikustera. Handik
—abokatu bat ezin ordaindurik—
jujearengana eta
beren haurra ez dela gaiztoa,
«badaki berorrek...
lagunarte txarra...»,
eta hiruzpalau aldiz itzultzen dira,
harik eta egun batean epaileak
sumario ahantzien pilatik
ale banaka batzuk irakurri eta
—eskumuturra kondiziotan baldin balu—
behin-behineko libertatea sina dezan arte.
Ama txiki beltzik ez duten presoak berriz
haiek inork ere ez ditu gogoan.
Beraiek dira nonbait
lagun txarrak.

Arratsalde osoan ez da sumatu
ohiko burrunba etengabea,
bosgarren zeldako gaixoaren kantu,
garrasi, danba izorranteak;

goganbeharra eta tristura nagusi
arratseko tenore goibelean,
eta zeinen jasangaitza zarata
gogaikarri haiek ez entzutea!

Bat-batean munduan bakar naukan
isiltasuna hausten
mila oinots bortitz, mila ahots urduri
korridorean zehar,

eta ate azpitik sartzen
ke ikusezin hori,
bizi iraungi berri baten kea, isilka
iritsi den herioren kiratsa.
Galeriako bizilaguna,
lagun bizia zena,

ohean zerraldo idoro dute
inoiz baino geldiago.

Bizkitartean gauak bere ilegurizko
mantu iluna hedatu du
eta niri gogora datorkit atzo
bonbila berri bat ukatu zidan
mixerablea.

Ate kolpe batek apurtu ditu
Gary liverpooldarraren berbak:
— Son of a bitch.
Eta kanpoaldean kar-kar-kar
irri mendekariak
hazi eta harrotzen dira:
— El guiri no se entera.
Hitz bat bera ere ez baitaki
Espainiako hizkuntza unibertsalean.
Sekula holakorik...
Eta zirrin-zarran zeldaz zelda doaz
kar-kar-kar gosaria partitzen
poliglota aluok.

ZORTEAREN MENDEKOAK

Loterian inoiz jokatzen ez duen puta,
arras lurrean baititu takoi luzeko zapatak,
behaztopatu egin da espaloian jausitako
makilatxo miragarri batekin.

Hartara, hiru nahietarik
lehendabizi osasuna eskatu du lanera
behin ere ez huts egiteko.

Bigarrenik bezero ugari nahi luke
—ahal baledi jende zintzoa—
aurki lan egin behar ukan gabe bizitzeko.

Azken eskakizunaren egitear
gizon hordi samartu bat agertu da
karrika kantoira,
eta loterian inoiz jokatzen ez duen putak
eskuaz gona lisatu eta
adats higatua harrotu ondorenean
irribarre batño entseatzeaz batera
makilatxo miragarria jaurtiki du
errepide ertzera.

Ugari dira munduan beren belarri biekin,
guardasol blindatuarekin eta
gero arte irribarretsuarekin
paseatzen diren gizon-emakumeak;
haietarik batzuk gainera
inoiz jokoan deus jarri gabe
beti suertatzen dira irabazle.

Gaur egun ez dago noski klase diferentziarik,
alabaina bada, patuak hala xedaturik,
arestian goi klasea esaten zitzaion jende bat
besteak beste emakumezkoarenganako
sentiberatasun aparta aitortu behar zaiona:
Beren emaztea sukaldeko kuxidadean
higatzen utzi baino lehen, gizon horiek
neskame bat jarriko dute haren esanetara.
Halaber larrialdiren bat gerta badakio
beraien andere zoko-betegarriari
—verbi gratia buruko mina—
errespetatu eginen dute ohantze mesederik
exigitu gabe
eta neskame bat jarriko beren zerbitzuko.

Ez bekit uler irabaztea
berez ez dela zilegi,
hala ere ez bide da erraz
duintasunez irabaztea, duintasuna
orrazkera eramateko modu dotorea
izan ezik behinik behin.

«Probidentzia izan da», entzun izan dut maiz
zorioneko gertakariren baten ostean.
Halabeharrari egozten zaio
zorigaitz bat jazo izana, eta esaterako
norbait ustekabean hil eta gero
«patua zuen» esan ohi da. Bai eta asmatu ere.
Izarren eragin erabakigarriaz
duda arrastorik geratzen ez den honetan,
nitaz den bezainbatean, ondo asko dakit
ez naizena irabazteko jaioa (ez eta iaioa),
eta irabazle, jakina, jaio egin behar da.
Biluzik bezain krudel ageri zait patua,
halarik ere neure etsian
ez dut esperantzarik galdu, azken batean
patua iraganeko kontua baita.

EGUN EROKO KANTAK

Falta ohi zaitut gauean
ohe hotzera sartzean,
geroztik are faltago
hura berotu denean.

Ohearekin batera
berotzen naiz ni gainera
pentsamenduak bildute
ai, oi, zure gonapera.

Alimaleko antiojoak
zelatari komunean,
haien atzean buru-belarri
gizontxo bat kuxkuxean.

Holako afan neurrigabeak
sorrarazi du galdea:
nola ote da begilaburra
hain gizon begiluzea?

GOIZEKO KOBLAK

Soro idorra lehertzear,
zenbat samin, zenbat negar
ametsak oro antzuak diren
bide malkartsuan zehar.

Etxe zurixkako bortan
atso zahar bat eguzkitan,
oraintxe dela hirurehun urte
sortu zen mundura bertan.

Egartsu dator erreka,
gazte deslai bat lasterka
aztoraturik hiri aldera
maite zuriaren xerka.

Bordan salgai anderea,
hau emagaldua dea?
Haurrak eskolan eta kartzelan
gizon bat leihotik beha.

Urrin soraio muinoa,
aldats gora desioa,
idi gorriek ametsak eta
orgak kexua daroa.

Helduko dira antzarrak,
ondoren fruitu nabarrak,
zigor zeldako euskaldunaren
begientzat hormatzarrak.

ILUNABARREKO GALDERAK

Nork jaurtiki du, ilunbe aiduru,
Ortzemuga zauritu duen lantza?
Zelai isila, ez guda azantza
Ez eta ere ezpata leinuru

Heldu da itzala: biharko asturu?
Igurikatzea, gure arantza
Alta ez dea hori esperantza?
Txoriak mutu, kilkerrak lanturu

Maitasun orena date menturaz
Besarkada anker honen gerizan:
Ohantze hutsa atauten liluraz

Abaildu da gaua eta ber gisan
Eguna hil hiletsien maluraz
Nork arrapiz liro, argi irritsan?

GAUEKO KOBLAK

Ilargia dirdizari
gauez loaren beilari,
zu ene ametsik goxoen eta
ederrenen margolari.

Bailaran gaindi ur hotsa,
enegan zure ahotsa,
oihartzun horren xeraz barnea
zeina omen den bihotza.

Bihotza dela diote eta
beleak nahi dit erauzi,
gogo bizia, bizi gogoa
eta arrosa ebatsi.

Arrosa ba ote hobe?
arantzadun baina lore,
esperantzaren berdea ere
behazunaren kolore.

Zuhaitzak lurra ezagun,
nik bakardadea lagun,
tristura ez den zirrikitu bat
bilatzen egunik egun.

Eskas basoan haritza,
mortu honetan geriza,
hamasei bider irakurri dut
zure azken eskutitza.

ILUNBEA

«Oraindik gazte zara»,
esaten dit gure amak urtero,
eta honen gaztea izanik ere
arrunt zaharturik sentitzen naiz
arrastiriko tenore honetan.
Adin kontua ote da?

Anitz gauza nizun galdetu
nire zalantzen argipena
gordetzen duzun horri,
eta duela mende batetik esperoan naukan
erantzunak lore berrien artean abegi egin didalarik
ahots batek «¡recuento!» iragarriz
galderetara jaurti nau harzara, baina
zu ikusiaren eguzkitan geratu naiz
etzanik, «...veinte, veintiuno,
¡póngase en pie !, veintidós...»,
eta zure urtebetetze egunaz oroitu naiz.
Baina nigandiko zorionek
baimenduak behar dute izan zuganaino
iritsiko badira, baina eta baldin

hizkuntza susmagarri honetan izkiriatzera
ausart banadi hobe duket
heldu den urteko datapean igorri
garaiz ailega dakizkizun
zorion zentsuratuok.

Menturaz zentsuratzaileak ere maite du inor
eta bi hilabeteren buruan hartuko dukezu
haren errukia, berak eta berak bezala
paperezko zorion eta maite zaitut ilusioz beteak
edo desesperatuak baimentzen,
sekretu ezagunak urratzen dituzten
profanatzaile guztiek
nire madarikazioa jasotzen duten artean,
munduak gaztetasuna gurtzen
duen artean, gazte izatea
jainkoen kuttuna izatea bailitzen.

Arratsalde grisak
kontsolaezina dirudi,
hala ere estimatzen ditu
beranduko euri bakan hauek.
Nik ere lantzean behin
asaskatu behar nuke
ene baitako hodei kargatu hau.

LUMA BAKAR

Amarrugabe,
ez hobengabe,
lakio kantak
ezarri nizkizun
gari artean
(eta nolabait
barregarria da:
nire txoriak
ezpainak ezti).

Txori eta gari
artean, baina
hegaldi motzeko,
hala nahi zintudan,
hala eta nire
hegal-zabalera
gainditu gabe.

Abioi bat zara
ostera eta
lumatu nauzu

eta jausten utzi.
Jitoan dagoen
ontzi txatxarra
dirudit segurik,
ausartu naiz baina,
ausartu ere,
ur handitan gaindi.
Ez naramate uhin ilunek.

Aldean dudan luma bakarra
zurea da, baina
ez da zuria,
halarik ere, lasta guztia
botata bainago, aitortzen dizut
hegaldi motzeko nahi zintudala
eta orain behar zaitut aingura.

LOBARI GUTUNA

Katagorri hori:

Jaso dut zure eskutitza
ikaragarri poztu nauena eta horregatik
hauxe idatziko dizut nik. Asko gustatu zait
zure ikastolaren sinboloa ondo marrazten duzu
ni ere ez naiz txarra etzazula pentsa baina
ez dakit nola margotu ikastola honen sinboloa.
Honezkero udako oporrak emango zizkizuten
hemen bero handia egiten du lehendik ere
sobera bero geunden arren. Gaur igual
oilaskokia ekarriko digute bazkaltzeko.
Ondo pasa oporrak besarkada bat etxeko
guztiei musu handi bat zuri.

P.D.— Larunbatean lagun bat ekarri zuten
ikastola berezi batetik eta hango maixu
txoro batek kuarto beltzera eraman zuenean
eskaileretan behera plaust erori zen
edo holako zerbait eta txikituta dauzka
hortz guztiak eta Joxemari du izena. Aio.

KORAPILO TRAGIKOA

Bidegurutzean bere hautua ederra zela
uste zuen. Txarrik onena eta ezinbestean
ederra. Baina baitezpadako bide hura
gurutzebide bilakatu zitzaiolarik
bere buruari galdetzen hasi zitzaion
zer duen ederretik amaren negar saminak,
zer kirioetarainoko beldur eta
oinaze etengabeek. Zergatik den ederra
laguna zein etsaia erortzen ikustea.
Eta beso artean hutsune hori,
azken agurra lako hutsunea...

Egunsenti oskorriak iragarri balu bezala
kale kantoi batean hil zuten,
eta autopsia egitean luzaro eta
poliki landutako brodatu bat
aurkitu zioten barne-barnean:
atsekabea.

Guztiz da belztu
inguru goibela,
ezabatu guztiz
kristalaz bestalde zabaleko irria.

Zeldako argiarekin batera
ilargia itzali dute.

EGUNERO HILTZEN GARA

Goizero hiltzen gara eguna jaio orduko
eta geroztik beste hamaika aldiz
gauean loak hartzerako.

Liburutik begiak altxatu eta
patiora begira euri tantekin
kristaletan behera labainduz goazela
hiltzen gara.

Bisita amaieran
aitaren begi suminduen hondoan
nekea sumatzean hil
                egiten gara
gutuna antsiaz iguriki eta
iritsi ez denean edo jasotakoa
azkena denean.

Eta batez ere gutarik bat
hiltzearen hiltzez bihotza lehertuta,
maindirez edo fonendoskopioz itota
azken aldikoz hiltzen denean.

Eskumuinak holakoren partez
bisita gehienetan, edo
gutunetan leitzen diagu
halako ikusi nian eta
gogoratzen haiz...?,
eta joan den astean izan zela
ematen dik. Baina anartean
hildako lagun guztiak ez dituk
egun banaka batzuetan kabitzen,
sakabanaketaren arranpa batean
bailebiltzan dagozela
gure gogoan.
Historia amaitu ei zuan eta
ondoren apur bat biziberritu
trikili-trakala segitzeko,
zenbait oker —tartean gu—
estrata batean galduta;
gazte kontuak, modak izan
ei dituk. Eta gauzak zer diren,
hara mutikotatik moda
zer begitandu izan zaidan:

anaia nagusiarengandik
jasotako arropak janzteko
ilusioa zapuzten zuen
fenomenoa. Baina hauek
antigoaleko kontuak dituk...
Bihar
edo urte bi barru
eskribituko deuat.

LO SPLENDORE DEI CASTRATI

IRRATSAIAK

Hogeita zortzi egunean ur botila besterik
ahoratu ez dugula
nekez eraman dugu dutxaraino
geure ahultasuna.
Film triste baterako eszena aproposa
eratu dugu segurki, hala ere,
musika hunkigarririk
ezean,
barre egin dugu elkarren biluztasun
penagarria ikustean,
eta gutariko batek esan du makurtzen garelarik
gure ipurmami mami bakoek
behien atzealdea diruditela, eta
barre egin dugu atzera.

Ondoren irratiz entzun dugu otartekoak
jaten ditugula ezkutuan, eta
beti minberati, mindu egin gara
hogeita zazpi egunean
gure gosearen berri eman ez duen irratiari
kargu hartuta,

ez baitugu informazio arautegi deontologikoaz
tutik ulertzen.
Berehala, ordea, aspaldion gogoa betetzen
diguten
oroitzapen urrinei eutsi diegu
berriz ere.

— Kafekoletxe zopakaz —esan du norbaitek.
Eta barre egin dugu.

UNIBERTSITATE MUTILAK

Zuen lumatik ez da gezurrik aterako,
diotsue fakultatera joan zaizuen hizlari famatuak,
egia bat esateagatik ile bat galduko baduzue ere,
eta irribarre bat itzuri zaio ezpain ertzetik
zuen eskuliburuak ikustean, eta
zuen galdera tolesgabeak entzutean
eskarmentuak zailduko ditik, pentsatu du.
Izan ere, bide luzea duzue ibilkizun.
Egia defendatzeko ahotsa findu beharko duzue,
egia gordinegia baita sarritan. Urguritasunez
esan behar da, haragi kolpatuaren ubela
zuritzeraino. Bide luze sakrifizioz betea, baina
zuetako hoberenek atzemanen duzue
ongiaren eta gaizkiaren arteko harresiaren
jagoleen distira. Castratoaren distira.
Orduan hitzaldiak eginen dituzue
unibertsitate mutilen aurrean, eta irribarre bat
itzuriko zaizue haien eskuliburuak ikustean,
eta haien galdera tolesgabeak entzutean
eskarmentuak zailduko ditik, pentsatuko duzue.
Egia bat esateagatik ile bat galduko duzue, baina
zuen lumatik ez da gezurrik aterako.

Izan ere garai txarra bizi garen hau
modaz pasaturiko utopiatan sinesteko.
Baliteke egoskorrak izan eta modako
errealitateari bizkar emanik bizi garela,
baina esazue: zelan sinetsi
zuen zuzenbidezko errealitatean
hemen eta urrin elkarren sinonimo direneko
errealitatearen harlauzapean malbizi
garenok?, ezen
errealitatea, helas, ondoko ziegan dago
ohean hedez loturik,
bere baurre etengabearekin zirgitalditik
eromenaren muga sumaezinera garabiltzala.

Iturri fidagarrien bila idoro duzu
ur uherrak ere egarria berdintzen duela.
Iturrian, baina, ur uherrik ez.
Ausart zaitez, behin bederen,
ez ereinotz usainean baina sasi artean.
Ekarzu argi pittin bat ilunbeko
xirripa honetara eta ikusi bertatik bertara
ezintasuna metatzen ekaitz osteko
ekaizpean. Erdu besterik ez bada ere
jarauntsidun aukera-berdintasuna eta
lukurreri eskubidea aldarrikatzera,
erdu herrenaren makuludun pribilejioa
salatzera. Erdu eta sala ezazu
ezin konta ahala eguneko bakardadearen
lekuko den
sei metro koadroko pribilejio hau.

HAURKARIAK

Tarta erraldoiaren atzean jarri duten
haurtxoak bere lehen urtea bete du.
Eritxo erakusleaz gozokitzarra ukitu eta
erantsita geratu zaion pusketari
zientifikoki behatu ondoren
ahora eraman du benazko, zeremoniatsu.
Jaizu jan potxolotxo gurea, diotsote
inguruko hainbat aho itxuragabeek, eta
kantu artean opariak ireki ahala
haurraren begi handiak handiagotuz doaz,
harik eta bat-batean oparion
bildukinetako bat hartu duen arte,
aulkitik jaitsi eta dingilin-dangalan
kalerantz abiatu da pozarren,
paper koloretsua astintzen.

Hain ttipiak eta zein goiz eta zuzen
atzematen dituzten kontzeptuak,
are gogoari dagozkionak,
irakaskuntza egoki bat dela medio.
Eta zer zirrara sentitu dugun gaur
gure honek eskolatik irtendakoan
naturaltasun osoz esan duelarik:
— Ama, porrotak nago.

Askatasuna, esate batera leihoa zabaldu
eta ortzemugarainoko zelaia ikusteak
iradokitzen zion zera zen harentzat.
Eta sarritan entzuten duen hitz hori
ona den galdetzea otu zaio aspaldion.
— Bai, haurra, libertatea, izan ere, ona da
baldin ordena jakin baten barruan badago,
ordena horrez kanpokoa libertinajea da.
Eta egunean baino egunean susmatzenago du
libertinajea arras zabala delarik
harako ordena horretan kabitzen den
libertatea estu-estua dela.

Orain leihoa zabaltzea
libertinajea ez ote den zalantzak ditu.

Ikasgelako arratsalde amaigabearen ostean aurpegi Bronquidiacina-A baino gozoago bat ikusi du parkean. Ez daki nola entseatu haren arreta erakarriko dion eztula, baina jolas artean zeharkako begirada biek elkar topatu dute lipar batez. Orduan haizea sentitu du bere gorputz izerdituan eta egonezina nagusitu zaio, bai baitaki haizeak denbora bere baitara bildu eta eramaten duela.

AMETSAK ETA ITZARRERAK / MAITASUN SETATIAK

Zure begietara narama gogoak
Belardi leun horretan hartu ohi nau loak.
Ezpain hordigarriak ardoa lakoak
Behin dastatuz geroztik ezin ahantzizkoak.
Eguna urrez jantzi du zure biloak.

Laua zara
eta borobila.

Zure lepoan behera
konortea galtzen dut.

Eta bularrak,
sagar mardul horiek kulunka...
itzela zirrara
zure atorraren azpian antzemanik
eta esku dorpeoz
agerian ipintzen ditudalarik...
(ai, takikardia alu hau!).

Soinean daramazu nire desioa
Bizkarretik barrena irristatuz doa.
Ipurdi zoragarri eta bolizkoa
Zenbait atseden egun —bizitza osoa—
Dohatsu emateko moduko muinoa.

Hondartza eta amildegia.

Eta zelan idatzi
zure eskuen dantza kitzikagarriaren doinua,
zure larruazaleko partitura amultsuak
edota hartzurizko izter horien abegia?
(non ci sono metafore...).

Zer axola hori guztia ordea?
Besterik da-eta kontua:
elkar ukitu orduko aienatu zara
eta ni hustuz noa zuk bezala zerbaitek
ihes dagielarik nire baitatik.

Eta orain zein kamio hartu,
zein orgabide edo zidor
sarraila hotsek iratzarri aurretiko
amets gozora itzultzeko?

Eromenaren sirenotsak
begiak
barroteen
itzaletara
irekitzen dizkidanean
zure adatsa
nire begiradan korapilatzen
den momentuan
babesten naiz.

Hotz lazgarria egiten du eta
zugana nahi dut hegatsez,

hegatzez baina ez elez,
hegatsez eta airez.

Izugarri olerki ederrak
izkiriatzen ahal nizkizuke,
zutaz oroitu besterik ez dut...

baina hotz lazgarria egiten du
panpoxa, ea bihar
ezer bururatzen zaidan.

BART IRAKURTZEKO GAUR IZKIRIATUA

Goizeon itzartzean
zure bernak neure bernetan
endredaturik sentitu ez eta
(ezin osaturik nabilen
katarro hau gutxi bailitzen)
hil egin naiz.

EZ DA KONPLI

Elkar besarkatzen utziko baligute,
bost minutuan bederen...
diostazu zeure gutunean.
Ez al zara konturatu, gizaixo hori,
gure besarkada batek Estatuaren
zimenduak pitza litzakeela?

Ez da erraz poema bat egitea.
Poema txar bat egitea sarritan
ez da erraz izaten.
Egin nahi nizuke poema kaxkar bat,
edo hitzezko poema eder bat agian,
zure irribarreak goiza zabaltzen du
eta gisako gauzak idatziz.
Baina, zure irribarrea beti eta beti
patrikan daramadan arren,
gaur ez datorkit gogora
ezin idatzizko poema bat baizik.
Erraza edo ez, ez du axola zeren
poema bat egitea batzuetan
ezinezko baita.

Gaur ihauli behar zaitut,
sofriarazi berba mingarriz bete
sabeletik eztarriraino,
berariaz eta zure erru bakarra
neu naizela
hainbat eman didazunez gero:
mende bi eta zenbait liburu
eta artilezko galtzerdiak
hamaika zapuzteren truk.

Negu hotza gero aurtengo negu hotza,
dagokion testuinguruan segurki,
eta maite zaitut maite
testuinguruz kanpo ordea.

Zenbat ordu eman ote dudan
zure arimarekin errimatzeko
berba goxoen bila, eta behin
zure izenaren letrak permutatu nituen.
Ez zergatik galdetu,
arren itaunik ez,

berehala damu duket
alabaina (eman diezaiogun txanda
ezintasunaren ahotsari)
utzi gaurko gutunean
gogorki trata zaitzadan.

Hika eginen dinat, hasiera hartan bezala.
Egunez amodio poemak egin eta gauez
dadaisten antzera desegiten nituenean bezala...
Haiek ez zitunan poema dadaistak ez deus;
amodio poemak nahi zitenan, baina nik,
ahalkez, mozorrotuak behar nitinan.
Denboraren joanak Ulise bihurtu ninduelakoan,
lurralde ez etsai baten bila, maitasun gutunek
erridikuloak izan behar dutela irakurritakoan
neure bertso berri kaxkar eta egartsuen
freskagarri hindudan, loreak udan ihintza bezala...
Eta ez nionan hosto iharren kexuari erreparatu
eta ustekabean negua iritsi zelarik
izotz beltzak atzamarrak moteldu zizkidanan.
Nolanahi ere, oraino uste dinat meteorologoek,
zer gerta ere, oharrarazi behar luketela
itsasaldera hurbiltzen haizen bakoitzean.
Eta Ulise ez naizen arren nire baitan baziraun
itakaminak, eta orain hika deginat berriz,
etsipenaren mintzamoldea balitz bezala, ezen
mezu desesperatuek diten segurrenik

esperantzarik gehien gordetzen. Nire mezua,
basapiztia kikildua, ihesi zoan
hire soaren abaro epelera, hire begiek
jakingarri egin dezaten, Itaka
inoizko aberri urruna soilik izan ez dadin.

BITORIA ETA (D)ERROTA

HAEC EST VICTORIA QUAE VINCIT

Ez zenuen merezi ukan
Dmitri Shostakovitxen sinfoniarik
Antzinako Leningrad zapuztua
Nafarroaren galera

Jasoa izan zinen
Ludwig van Beethovenen partiturara
Wellingtongo Dukearen Bitoria

Udazkeneko goiz hozkirria da
haizearen fereka gorria sudurrean nabari
umea etxera iritsi denean
Hotz egiten duen
galdetu dio amak
Baietz semeak
Bernetan batez ere
Eta amak
Laster galtza luzeak ihardetsi dio
haurrak bere pozean nekez ulertu duen
irribarre xuabe batez

Errota Zaharreko mutiko koskorrak
ez du errotarria konprenitzen
Lehen Jaunartzea egin berritan
Zaramagako zerrategia du noizik behin jolasleku
Ondoan badago hiri bat Kanposantua

Vitoriako plazaespañan
Osteguneko azoka
Igande goizeko kromo trukaketa oroitia
Gurdidun zaldi zuria bueltaka

Oporretako zeru garbian egunero arrano bat
Atxabal gaineko zaldizkoa arrapalada eternalean
Gorbeian gora doan herrixkako errota txikian
gordeta dauzka armak mairuen kontra
Errota Zaharreko mutikoaren ametsen artean

Euskarazko lehen liburua Meza Santua
Erruki Jauna Zure hitza politizatu dute
Katedral neogotiko bat inauguratu dizu
Franco txit jeneral Espainiaren jabeak
Aitasantua jabeago da munduaren

Bigarrena Euskara hire laguna
Urrutia jauna irakurtzen ari du-ez-da
Buruzagi karlista baten izena izan zitekeen
Egunkariaren lehen orrialdeko Eustakio Mendizabal
Ez da Bilboko setioan jeneral jausi
Legeek hedabideek zentzu komunak terrorista diote
Gorbeiako errotako alegiazko armek ez dute balio
Mairuen laguntza behar du euskal ametsak

Udaberriko goiz usaintsuan
irakasle alergiaren batek joak
bere apaiz aurpegian kezka
ikasgelara sartu orduko
otoitz egiteko eskatu die
gazte zaratatsu ezaxolatiei
Otoitz egiteko Portugal herri dohakabea
komunismora jaus ez dadin
Eta denak zutunik ipini eta
Aitagurea errezatu dute
eguneko leziorako arreta berberarekin
Eta Portugal gaixoa
ez da komunismora jausiko

Frantziara joan delarik ez da Frantzian badaki
Askatasunak lau libera erakusleihoetan zazpiak bat
Xiberotarrak barne oraino ez ditu ezagutu
Kantorez baizik Iruriko koblakari Etxahun
Donibane Lohizuneko eskual bestan xülülari
Eta Garat-Arhane tabalaria
Haren eleen transkripzioa eginen da
Espainiako espetxe batean hamar urteren buruan
Heben frantses hun bat ikhasiren düzie
Franco assasin oihukatzen da
Hendaiako karriketan gaindi ikurrin erraldoiak

Hots berdineko bala guztiek ez dute mintzo bera
Errota Zaharreko mutilarentzat
Kanposantua dagoen auzategian da
Etorkizunez kargatu poesia desarratzeko zain
Mintzo bereko balek ausiki dituzte
Aberri bereko ez diren langileak
Kanposantua dagoen auzategian jadanik
Ez dago zerrategia Gasteiz hiritu dute
Odol hau xurgatuko duen zerrautsik ez
Kanposantuko hiri guztian demokrazia guztietan
Martxo iraultzaile nahi honek hiru dituelarik

Aro zaharraren epilogoan atzerriratuak
Estrainiatu herriratu berriak agertu dira
Durangoko jendetzaren begi harrituen aurrean
Ez digute errotarriekin komekaraziko diote

Iparraldetik ironia dator musikan blai
Durangoko harrituen arma zorrotza
Eta aro berriaren prologoan jesarri dira
Historia aldeko noraezeko garaipenaren zain
Iritsiko denean soineko lez jantzita
Euskadi berriko gizaki berri bihurtuko dira

Gizaki berriaren goitizena euskaldundu beharko
Bitoriatik gertu dago haren jatorri noblea

Katedral neogotikoaren parean ez da Lauaxeta
Ez da Aitzol bere deitura gorabehera
Xurrutarri laborrituak lekuko fusilatu dute
Aitzol erail zuteneko herriko semea Hantxe
zauritu dute sakon Aitzol sortu zen herriko gaztea
Hantxe hasi zaio urkaberainoko bide luzea

Begi ikaratuek etsaiaren topa ikusi dute
Estatuak strip-tease egiten duen soto ainubean
Topa horrendako argirik ez da horraino sartuko
Txanpainak etsaiari ez dio odola gozatzen ordea
Etsaiaren makurrak ez du norbera makulagaitz
egiten
Baina zer axola zaizkio gogoetok orain
Infernuko itaunketa segitzeko bila doazkiolarik

Aspaldiko hainbat autogobernuzalek
Diktaduran errepresioa zela kausa
koltxoi barruan ezkutatzen zuen ikurrina

Egun nahinon zehar eramaten dute
Diktadurako banderaren itzalpean eta
koltxoi barruan errepresioa dute gordetzen

Nafarroa zeureganatu gura ei duzu
Gaztelaren irudi eta antzeko
Mundu Berri berriaren Bitoria
Ba ote da sinfonia bat eginen dizun
anton dvorak afrikarrik?

Orain Durangoko estrainiatuetarik batzuek
Durangoko harrituendako atzerria eskatzen dute
Daniel Landarten poema ironikoek
ironia galdu duten orain
Errota Zaharreko mutikoak konprenitzen ez zuena
ulerterraz ageri da Komekarria

Gurdi gabeko zaldi zuria bueltaka
Martxo odolustu hartako no olvidamos ahantziak
Eguneroko merkatuan gizaki berria salgai
Vitoria-Gasteizko plazaespaña ikur

NINOTCHKA

Mundua eraldatzeko gauza ginela sinetsirik ere
zure begirada tristea (edo ezaxolatia
Marlenerena bezalakoa) aldaezina zelakoan
etsita bizi ginen Halako batean
zure ahoan irribarre bat loratu zen eta
gure bihotz boltxevikeak hautsi zenituen
Hori al zen zure irribarre amestuaren prezioa?
Ez zaitezela tronpa ordea Ninotchka
begiak argitu dizkizun maitasuna gutxienik
abandonatu duzun fedea bezain itsua baita

BIGARREN SAIOA

Gaur kalea zeharkatu dut biluztasun zogian
arimarekin eta ukondorik gabe
Auto batek eztul egin du progresoaren alde
Dendariaren irribarrea zabalduz doa
jubilatu bati jendetasunez lepoa mozteraino
Eta zakarrankan eta negar zotinka
elizara sartu naiz dosi bat intsentsuren bila
Gorpu-jasotzaileak errekorra berdintzen saiatu
behar du ehun eta hogei kiloko albaitari batekin
Eta ihesi eta bekaizti eta gogoz kontra
itzuli naiz zementu eta burdina artean isurtzen den
mende mantso honetan libre izatera
egunen batean gatibu izateko irrikan

Nire bekainak ez dira Frida Kahloren hegoak
Nire bekainak urdintzen hasiak dira
Nire bekainak ez daude hautsez beterik